

Prest!

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

184 zenbakia
2017 urria

Prest!



BERBETAN: **XABIER MADARIAGA** KAZETARIA ETA AURKEZLEA

ERREPORTAJEA: **11 EGUN EUSKARAZ DEUSTUALDEAN** BARKUA: **DEUSTUKO GAZTE LOKALA**

TOKIKOM

178-179-180-181-182-183



Prest! izan



Harpidetu
urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com



Izen-abizenak:


Helbidea:

Telefona:

Harpidetza
Txartela



Babesleak



aurkibidea

	Arantza Etxebarria - Gaizka Suarez		Iritzia	4	
	Francisco Javier Abeso Mba		Gurera etorria	5	
e	erreportajea '11 Egun Euskaraz'			6	
	<i>Azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatzekoa den '11 Egun Euskaraz' ekimena aurkeztuta, lantaldea eratu dute Deustualdean euskararen erabilera sustatzea xede duen proiektua abian jartzeko.</i>				
		Intxixu ikastola		Eskola	10
	Olabeagatarra, 'Eguna' egunkariko deustuar kolaboratzailea		Behin batean	12	
	David Rincon		Artikulua	14	
b	berbetan XABIER MADARIAGAekin			16	
	<i>Deustun bizi da Xabier Madariaga kazetaria bere senarra eta bi seme-alabekin. 'Ur Handitan' saioa aurkezteko erakusten duen hurbiltasun eta apaltasun berarekin erantzun ditu gure galderak.</i>				
	Kanalaren irekierarako urte batzuren faltan, 1962		Irudiak berbetan	21	
				24	
	MUSIKA Zazkel taldearen berriena				
	SAREKADA Klik eta klik				
	PINTXODROMOA Izeki taberna				
	KULTUR TXOTX Luken Lamikiz eta Enare Munitategi				

**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Gaizka Suarez, Arantza Etxebarria, Luken Lamikiz, Garazi Calvo, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BOST
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Legе Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017



Gaizka Suarez Iparragirre
abertzalea



Kaiolak irekiz

Bizitza erritmo eroan murgildurik jendea joan-etorrian dabil, bakoitzak bere arazoak buruan dituela, egunaren amaierara bizirik iristeko beste helbururik gabe. Metroan sartu eta isiltasuna da nagusi. Alde batetik, oraindik aurreko eguneko nekea gainditu barik erdi lo doazenak eta; bestetik, metroan bidaiatzearen egoera deserosoari telefonoa erabiliz aurre egiten diotenak.

Kolektiboan bizi omen gara. Maiz, ordea, kolektibitatearen kontzeptua galtzen ari garela pentsatzen dut. Gizakia izaki kolektiboa da naturaz (beti esan izan dut), baina lan eta kontsumo zentro huts bihurtutako hirien bizi ereduak jatorrizko izaera horretatik aldendu gaituzte, gure bizitzak kaiola isolatu bihurtzeraino.

Hala ere, badira logika inposatutik irten eta kaiola horiek irekitzeko balio duten guneak. Horren adibide da Deustuko Gazte Lokala. Gazteok bildu eta gure bizitzen problematika partekatzeaz gain, gure kabuz hainbat proiektu eta ekimen aurrera eramateko espazioa.

Orain, Bilboko Udalak 26 urtez Deustuko hainbeste gazteren etxea izan denarekin bukatu nahi du legealdi honetan antzeko beste bi espaziorekin (Etxarri gaztetxearekin eta Izar Beltz ateneoarekin) egin bezala. Gazteak Gran Viako saltokietan sartuta nahi gaituzte eta ez esperientzia kolektiboak eraikitzen. Gure ametsei ateak itxi nahi dizkiete baina, guk txori askeak izan nahi dugu. Defenda dezagun garena, defenda dezagun gurea dena!



Arantza Etxebarria Iturrate
arratiarra Deustun



Arimak

Joan dan hilean, Euskararen Etxean, Eulalia Abaituaren argazki-bildumea ikusteko aukerea euki neban. Erakusketearen izenburua *Esteroskopiak 16+16* zan. Han ibili nintzen areto batetik bestera, 3 dimentsioko aintiojuak begietan eta audiodigidea belarrietan dala. Izan be, argazkiei laguntzeko, gaur egungo idazleek sortutako 16 testu entzun ahal izan nebazan. Iraganari berbak jarri eutsiezan gaur egungo ahotsak.

16 argazkietako bateri lagun egiteko kontakizun horreetako baten, hainbat ume eukazan txalupa bati begira nengoa-la, Ana Urkizak aitatu eban aspaldi oso zabaldua egoan ideia, hain zuzen be, argazkiek arima lapurtzen ebela.

Horren harira, gogora etorri jatan gure aita zana jaio zanko baserria husten ebilzanean argazki piloa sueteko leihoetik bota ebela. Ni gaztea nintzen, eta izutu egin ninduan horrenbeste arima galdu betiko desagertuko zirala pentsatzeak. Gure aita zanaren komuninoko argazki bat berreskuratu neban moltsotik. Harrezkero, aitaren arima zati bat daukat nire etxean, nire altxorren kutxan.

Ni mundu honetatik noanean, inork gordeko ete dauz nire arima zatiak? Bien bitartean, hor nabil ni, argazki-kamarea eskuetan hartuta, klik! eta klak!

Klik! eta klak! Arima zatiak handik eta hortik harrapatzen.



Francisco Javier Abeso Mba

Jatorria: Ekuatore Ginea
Bizitokia: Arangoiti
Lanbidea: ikaslea eta administrazio aholkularia



“Ez nuke hemendik alde egin nahi nire helburuak lortu arte”

Zenbat denbora daramazu Arangoitin bizitzen?

Orain dela hamar urte etorri nintzen nerabea nintzela. Orain 25 urte ditut, eta oso gustura nago. Nire familia hemen zegoen. Nire ahizpa hemen bizi zen, eta bertan ikasten zuen. Ni ere ikastera etorri nintzen.

Eta ikasketak bukatzean geratzea erabaki zenuen?

Bai. Batxilergoa amaitu nuen nire formazioarekin jarraitu nahi nuen, hemen aukera asko daudelako. Ez nuen hemendik alde egin nahi nire helburua lortu arte, pertsona moduan ahal nuen guztia hazteko helburua. Gero nire buruari beste apur bat gehiago eskatu nion, eta beste apur bat... eta hemen jarraitzen dut. Kudeaketa Administrazioa eta Administrazioa eta Finantza graduak ikasi nituen. Orain unibertsitatean nabil Enpresen Administrazioa ikasten, eta lan egiten aldi berean.

Zertan egiten duzu lan?

Orain arte *Herbalife* enpresan egin dut lan. Baina unibertsitateak kudeatzen duen erakunde batean -CVXn- lanpostu bat eskaini zidaten administrazio aholkulari gisa. Izapidetan gabilta oraindik, baina laster hasiko naiz.

Nolakoak izan ziren zure lehenengo egunak hemen?

Hasiera oso gogorra izan zen. Askok kostatu zitzaizkidan integratzea, kulturagatik batik bat. Ni kultura ezberdin batetik nator, non gauzak modu ezberdinean egiten diren, eta egoera batzuk ez nituen ulertzen, jendearen jarrera edota pentsaera. Gainera, hemengo jendea ez da batera irekia. Gero ulertu nuen gizarte honen barruan horrelako jarrerak oso normalak zirela. Baina, hemengo ohiturak barneratzeko eta gizartearekin bat etortzeko esfortzu handia egin behar izan nuen.

Bertako zer duzu gustuko?

Gauza asko. Ordena eta ikasteko askatasuna batez ere. Esan nahi dut, leku guztietan ikasten da, baina han ez dago pentsamendu askatasunik, ikasten den guztia oso kontrolpean dago. Horrez gain, hemengo segurtasuna, lagunak, etab. Gainera hemen oso ondo jan daiteke.

Nolakoak izan ziren zure bizitza Ekuatore Ginean?

Oso lasaia. Hango bizitza ez da hemengo bezain arina. Han klasera sartzen nintzen arratsaldeko ordu bietan eta seietan irteten nintzen. Gai-ontzeko orduetan nahi nuena

egiten nuen, nolabait esanda. Gauzak ez daude hain araututa.

Kontaktuan jarraitzen duzu zure herrialdeko jendearekin?

Familiarekin jarraitzen dut harremanetan, bai. Baina lagun asko galdu ditut, umea nintzeneko lagunak. Hona etorri nintzen garaian ez zegoen Whatsapp eta Facebook bezalako kanalik lagunekin komunikatzeko, eta denborarekin kontaktua galdu nuen. Sare sozialen bitartez lagun batzuekin kontaktua berreskuratzen nabil orain.

Ez zara inoiz bueltatu?

Ez. Arrazoi batengatik: ni hemen nengoela proiektuak sortu zitzaizkidan, helburuak, eta badakit hara bisitan joaten banaiz eta han dudana familiarekin berriro elkartzeko gero, ez naizela gai izango hona bueltatzeko. Haiek atzean bigarren aldiz uzteko. Horregatik, ez nuke hemendik alde egin nahi helburua lortu arte, proiektu horiek bete arte, badaezpada.

Beraien falta sumatzen duzu?

Bai, baina pertsona bat, aurreragotzeko, atxikimendu horretatik libratu behar da. Familia beti egongo da hor behar duan momentu guztietarako, baina norberak bere bidea jarraitu behar du.

Testua
Nuria Arroyo



AHALDUNDU ETA AKTIBATU, EUSKAL KOMUNITATEAREN ERRONKA

Deustualdeko euskaldunek ahalduntzea eta aktibatzea erabaki dute. Euskaltzaleen Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak 2018rako ezarritako erronkari aurrea hartuz. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatzekoa den '11 Egun Euskaraz' ekimena aurkeztuta, lantaldea eratu dute Deustualdean euskararen erabilera sustatzea xede duen proiektua abian jartzeko.

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: PREST!

Hastapenetan, euskararen normalkuntzarako bidean hizkuntzaren ezagutzan jarri zen lehentasuna. Azken hamarkadetan euskararen ezagutzak gora egin du, baina ez erabileraren neurri berean. Erabileraren maila txikiak eta hainbat gunetako eta adin tartetako beheranzko joerak kezka sortu dute. Horregatik euskararen erabilera sustatzeko premian jarri da arreta azken urteotan. Hainbat dira euskaldunen eta euskara ulertzen dutenen hizkuntza-ohituretan eragiteko martxan jarritako ekimenak bai euskalgintzatik bai erakundeetatik. Arrakastuak izan dira batzuk, eragin txikia edota laburra izan dute gehienek. Izan ere, ohi-

turak, oro har, errotutako ohiturak, baita hizkuntza-ohiturak ere, aldatzea zaila baita. Baina ez ezinezkoa.

Ahalegin horretan azpimarratzekoak dira 2016 urteaz geroztik hainbat auzo eta herrian martxan jarri diren hizkuntza jokabideetan eragiteko eta euskararen erabileran eragiteko ekimenak. Horiek Lutxo Egiak 2015eko udan Bilbon egin zuen *Transitoak* izeneko performancean oinarritu ziren. Bilbo bezalako hiri batean hizkuntza hegemonikorik erabili gabe, euskara eginez batik bat, hilabetez, gutxi gorabeherako normaltasunez biziraun zitekeela erakutsi zuen.



Egunerokoan, bizitzako esparru guztietan, euskarari eusteko garrantzia nabarmendu zuen. Aurrez aurreko pertsonak euskara asko, gutxi edo ezer ez dakien inporta gabe. Lehen hitza eta bigarrena euskaraz egitearen premia azpimarratu zuen euskarazko harremanak sortzeko eta indartzeko. Eta salbuespenak salbu, euskararen aldeko jende askorekin egin zuen bat Lutxok. Euskara entzuteko eta erabiltzeko prest dagoen jendearekin. Euskaraz bizitzeko desioa egon badagoela plazaratuz.

Donostiako Egia auzoa izan zen aktibatzen goiztiarrena. Zortzi astez, zortzi txandatan banatuta, 365 pertsonak parte hartu zuten astebetetz euskaraz bizitzeko esperientzian. Egiako egitasmo pilotua arrakastatsua izan zen, eta pizgarria izan zen beste askorentzat. Ondoren etorri ziren gainontzeko herri, auzo eta mugimenduetako esperientziak. Hamarretik gora burutu dira jada eta beste horrenbeste gauzatzekoak dira 2017an. Tartean, Deustualdean Berbaizu Euskara Elkarteak sustatutako *11 Egun Euskaraz* ekimena. 2018an, erronka Euskal Herri mailakoa izango da. Euskaltzaleen Topaguneak, Eusko Jaurilaritzaren babesarekin, hamaika egunez euskaraz bizitzeko deia za-

balduko du. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean emango zaio ekimenari amaiera.

Deustualdean urtebete lehenago

Berbaizu Euskara Elkarteak Deustualdeko hainbat esparrutako euskaldunak Mullerrenean bildu zituen joan den irailean erronka lutzatzeko. Aurten, Euskararen Egunean jira-biran, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *11 Egun Euskaraz* ekimenean parte hartzeko desafioa, hain zuzen ere. AhoBizi eta Belarriprest izateko konpromisoa hartzeko proposamena, alegia. Egian, Agurainen edota Lasarte-Orian egin duten antzera, Deustualdean euskaldunen aktibazio ekimena martxan jarri nahi dute. Horrela bada, 2018an Euskal Herri mailan gauzatuko den egitasmoa urtebete lehenago probatuko dute deustuarrek. “Beroketa gisa baliokoduz”, Berbaizuko kideen esanetan.

Irailean amaieran Bidarte udaltegian batu zituzten euskaraz bizitzeko esperientziak antolatu dituzten Agurain eta Lasarte-Oriako lau lagun. Nork bere herrian burututako egitasmoetan bizitakoak konpartitu zituzten deustuarrekin. Esaterako, oso baliagarriak izan diren hainbat gomendio eta aholku sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

“2018an Euskal Herri mailan gauzatuko den egitasmoa urtebete lehenago probatuko dute deustuarrek”

Urriaren hasierarako eratuta zegoen Deustualdean egitasmoa bideratuko duen talde eragilea, Berbaizuko kideek eta hainbat esparrutako lagunekin osatua, elkartetik haratago doana. Taldekideek ekin diote *11 Egun Euskaraz* Deustualdean ekimenaren berri zabaltzeari, izen-ematea sustatzeari, partaideak identifikatuko dituen txapak banatzeari eta autofinantzaketa bilatzeari. Finean, ingurunea, Deustualdea prestatzeari. Bizipen indibidualak izango badira ere, ekimenak bizipen horiek maila kolektiboan partekatzeke aukerak eskainiko ditu, prozesu indibidualek bat egingo baitute prozesu kolektiboekin. Izan ere, partaideek baimena dutela sentitzea eta ekimenean bertan babesa dutela transmititzea inportantea izango da. Gainera, ingurua aldaketarako prest dagoenean errazagoa da euskaraz jardutea.

Bi modu daude parte hartzeko. Ahobizi edo Belarriprest izateko konpromisoa hartuz. Euskaraz komunikatzeko gaitasuna dutenak ahobizi izango dira. Hamaika egunez euskaraz egingo dute beti lehen hitza eta bigarren hitza euskaldunekin eta ezezagunekin komunikatu behar dute-nean. Etxean, kalean zein lanean. Euskarari eutsiko diote. Eusle lana egingo dute aurrez aurre duten pertsonak hizkuntza aldatzeko eskatu arte. Belarriprest izango dira euskara ulertzeko gaitasuna dutenak. Belarriprestek harrera baikorra agertuko diote euskaraz egiten dienari, eta euskaraz erantzuten ahaleginduko dira, ahal duten neurrian. Egitasmoak iraungo duen hamaika egunetan partaideek Ahobizi edo Belarriprest direla adierazten duten txapa bana eramango dute soinean. Dagoeneko 100 bat lagunek eman dute izena.

Aktibaziorako gogoia

Talde eragileko kide den Karlos Gonzalezentzat “oso pozgarria” da ekimena aurkezterarekin batera hainbat euskaldun aktibatu direla ikustea. “Begi-bistakoa da”. Proiektuaren helburua horixe bera

denean, “euskaldunen aktibazioa lortzea”. Are pozgarriagoa azken urteotan euskararen inguruko proiektu batera 14 lagun batu ez direnean zeozer antolatzen hasteko. Beraz, hasiera ona izan du.

Destualdeko *11 Egun Euskaraz*-ek talde eragileaz gain, laguntzaile sarea osatu du. Hurrengo pausoa da komunikaziora indarra bideratzea, “ahoz ahoko lana egitea”. Zabalkundea hedabideen eta Deustualdeko elkarteen bitartez egingo dute norbanakoengana heltzeko. Horretarako prest dituzte, besteak beste, esku orriak, bloga, bi whatsapp talde eta gmail taldea. Apurka-apurka badoa aurrera.

Helburu zehatz batzuk ere definitu dituzte. Erronka zenbakietara eraman dute. 100 Ahobiziren eta 150 Belarripresten parte hartzea-lortzea dute helburu. Lehen egunetan izen-emate elektronikoa “ondo joan da, aparteko propaganda egin gabe”. Karlosen esanetan, “zenbait euskaldun horrelako ekimen baten zain” egon diren seinale. Helburua lortu zein ez lortu, aurtengoa Deustualdean frogatzea izango da hurrengo urteko erronka hobeto antolatzeko. “Irismena ez da izango hurrengo urtekoaren bestekoa, baina ikasiko dugu ondo zer egin dugun eta zer txarto 2018an jende gehiagorengana iristeko”.

Deustualdean euskaldunen portzentaje handiena gazteen artean dagoela kontutan hartuta, “logikoena da” *11 Egun Euskaraz* gazteen artean zabaltzea. Era berean lan handia dago egiteko gazteen artean gaztelara “oso txertatuta dagoelako”, eta talde eragileko kideek “ez dutelako inor parte hartzera bortxatu nahi”. Euren jarreran eragin baino ez. Belarriprest izateko proposamena luzatuko zaie gazteei, kuadrillan inor euskaraz komunikatu nahi bada bidea errazteko.

Proiektu guzti honetan Belarriprestak giltzarriak izango dira Jonen ustez, “proiek-

tuari bultzada emango diotenak”. Balizko Belarriprestak talde heterogeneoa dira. “Euskara ikasleak, euskara ahaztuta dutenak, erabiltzen ez dutenak, finean, euren burua euskaraz hitz egiteko gai ikusten ez dutenak. Baliteke, seigarren egunean Ahobizi izan daitezkeela konturatzea ere”. Garrantzitsua da Belarriprestei ondo azaltzea egitasmoa, “eurek ahalbidetuko dutelako Ahobiziek euskaraz egitea. ‘Niri euskaraz egidazu’ adieraziko diete”.

Nork bere erronka

Etxean euskaraz hitz egiten ez duten seme-alabekin duen hizkuntza borrokan eragin nahi du hamaika egunez Karlosek. Belarriprest izateko konpromisoa har dezatela eskatuko die. Kuadrillan zenbait lagun euskaldunekin du bigarren erronka, eurekin beti hitz egiten baitu gaztelaniaz. Jakin badaki biren arteko elkarrizketak euskaraz izatea errazagoa dela eta taldera zabaltzea zailagoa Deustualdea bezalako eremu mistoan. Hortxe bere apostua, “hamaika egunez kaparrada euskaraz ematea”.

Talde motorreko Rupik ere bere lagunartean nahi du eragitea. Euskaldunak izan arren erderaz aritzen direlako. Ohitura hori apurtzea da bere erronka, eta horretarako parte hartzea animatu ditu. “Ahalegindu egingo gara, baina ez dakit beteko dugun konpromisoa. Arraroa da guretzat euskaraz hitz egitea, nahiz eta batzutan egiten dugun. Hamaika egunez euskaraz egiten ohihurtuko gara, eta au-

rerantzean normalagoa izango da orain ez dena”.

Nerea eusle izatera ohituta dago. “‘Bi zuri-to’ edonork uler dezakeela”, dio, eta “ogia egunero erosten duzun lekuan saltzaileak eskatu gabe emango dizu euskaraz eskatuta ere”. Umore eta jarrera ona adieraztea ezinbestekoak dira berarentzat. “Eta txarto hartzen duenak berarentzako kalte”. Horregatik Bilbon daramatzen 30 urtetan “liskarren bat” izan badu ere, “barre” ere ugari egin du.

Etxean eta lanean ohituta dago Nerea beste euskaraz egitera eta erantzuna gaztelaniaz jasotzera. Elkarrizketa euskaraz jarraituta ere komunikazioa ez dela eteten frogatu du. Etxean eta lanean ohikoak dituen elkarrizketa elebidunak auzoan ere izan nahi ditu. Deustuko Erriberan. “Euskaraz egunero edonorekin egiten dutenak ez garelako asko. Beste asko dira gurekin euskaraz bai, baina gainerakoekin egiten ez dutenak. Hizkuntza-ohiturak sakabanatzen diren neurrian indarra galtzen dute. *11 Egun Euskaraz* bezalako ekimenak balio dezake ohitura trinkotzeko, eta esateko, ‘begira auzoan zenbat euskaldun gauden’. ‘Hau egin badaiteke egun batzutan, zergatik hizkuntza-komunitate honek ez du fusionatzen gainerako egunetan eroso eta erraz bagabiltza horretan? Komunitatea sendotzea funtsezkoa da, bakarrik ezin baita hizkuntza-ohiturak aldatu”.

11eguneuskaraz.blogariak.net

“Garrantzitsua da Belarriprestei ondo azaltzea egitasmoa, eurek ahalbidetuko dutelako Ahobiziek euskaraz egitea”

www.renault.es / 902 333 500



RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT presentata in **EIF**





INTXIXUREN 40. URTEURRENA

*Intxixu ikastola sortu zela 40 urte
pasa dira. Bai, 40 urte, guraso 'zoro'
batzuk euren seme-alabak hazteko
euskara aukeratu zutenetik hona.
Orduan ez zegoen auzoko eskolan
aukera hori, gaur egun gezurra
dirudien arren.*

Testua eta argazkiak Intxixu ikastola

Intxixu ikastolaren hasiera baina, ez zen erraza izan. Beti toki faltan eta zegoena ikusi behar zer egoeratan. Itoginak ez zirenean, uholdeak ziren; zuloak ez zirenean, arratoiak....

Ikasle askok beste eskola eta ikastoletara joan behar izaten zuten, gurean ez zegoelako aurrera egiteko modurik. Eta zer nolako kezka ikustea hainbeste autobus San Inaziotik inguruko eskoletara guk hasitako txikiak eramaten. Noizko gure eskola? Noizko gure ikasleek gurean jarraitzeko aukera?

Zer esan orduko irakasleek? Astero prestatzen zituzten gidoiak edo ideiak txotxongi-loekin ohiko egoerak euskaraz plazaratzeko ikasleen aurrean; sarritan ere, Saturnina oiloarentzat, gure maskotarentzat, jantziak probatzen eta zer esanak asmatzen ibiltzen ziren, ikasleak hurbiltzearren, edo telebista zaharra hartu eta bertotik eurtako bat agertzen zen ikasleen akatsak zuzentzeko, edo antzezpentxoak moldatzen zituzten barrea eragiteko, baina beti euskara ardatz. Hezkuntza zen orduko ardurara, hezkuntza maiuskulaz eta euskara zen beste ardura, nola hurbildu, nola kutsatu, nola erraztu.



Ilusioak, beharrak eta gogoak lekua hartzen zioten leku faltari, arazoei, eskasiari orokorrean. Zer erremedio!

Gure hasiera Elizak San Inazion utzitako gela ilun batzuetan izan zen, gero Extremadura kalean Aspace elkarteak zeuzkan gela batzuetara pasa ginen eta handik gutxira, Andaluzia kaleko etxe orratzera (*ras-caciélos*). Han hasi zen lehenengo maila, orduan OHO (*EGB*) deitzen zena. Oraindik ondo gogoratzen dute irakasleek, inpresora ezean, zer nolako lana ematen zien arrain kola deitutako nahastea erabiltzeak kopiak egiteko orduan. Ur hotzarekin garbitu behar izaten zuten eta!

Urteak azkar pasa ziren, eta derrigorrez behar genuen toki gehiago. Gurasoek San Inazion bertan nahi zuten euren umeek euskaraz ikas zezatela. Hezkuntza Sailak auzoko eskola publikoan utzi zizkigun gela batzuk eta gatazka ikaragarria suertatu zen: hezkuntza publikoa *versus* ikastola kontzertatua, euskara *versus* gaztelania, batzuen ikusmoldea eta besteena, partidu politikoek ere alde batera eta bestera kokatu ziren, eta orduko hark gerra ematen zuen. Eskola eta euskara bariak, beste joko batera jolasten hasi ginen han, sare batean harrapatuрик.



Beste irtenbide barik, La Salle ikastetxeak guztiz zaharkiturik zeukan aldean sartu gintuzten eta handik urte batzuetara Sarririkoko Arte Ederren fakultatearen ondoan, Hezkuntza Sailak eraikin aurrefabrikatu bat eraiki zuen, eta bertara joan ginen.

Orduan heldu zen Eskola Publikoaren Lege berria eta aukera izan genuen sare publiko-
ra pasatzeko, eta bai pasatu ere. Harrezke-
ro, San Inazioko Kanariar Uharteak kaleko
Batxilergoko institutua Ibarrekolandara pa-
sarazi zuten, eta eraikina Intxixu ikastolari
eman zioten (baita DBHko IES San Inaziori
ere).

Ordutik hementxe gaude, urteak joan ur-
teak etorri, ikastola asko handitu da, irakas-
le asko pasa dira hemendik, eta denek utzi
dute euren aztarna. Denek handitu dute
proiektu hau. Poztasunez egonkortu gara

eta ikasleak lehen kanpora bazihoazen,
gaur egun ikasketak amaitu eta praktike-
tako maisu-maistra legez datozkigu, irakas-
le trinko ez datozenean. Gaur, harro gaude
gure historiaz, gure ikasleriaz, eta irakas-
leren batek edota gurasoren batek euren
berri dakarkigunean, are harroago.

Horiek guztiek egin dute egia garai bateko
ametsa eta orain, urriaren 17an, 40 urteak
ospatzeko jaia antolatu dugu denon artean:
puxikak eta aurpegia margotzea txikientzat
eta gure historia ezagutzeko aukera nagu-
siagoentzat, lehen orduetan. Tarta handia
ospakizuna borobiltzeko eta musika ede-
rra, hamaietakoaren orduan eta arratsal-
dez, karaokea.

Urtean zehar ere, bideo klipa sortu nahi
dugu ikasleen laguntzarekin. Emango di-
zuegu haren berri hurrengo batean.



ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER

FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765

Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48

H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





OLABEAGATARRA, 'EGUNA' EGUNKARIKO DEUSTUAR KOLABORATZAILEA

1937ko lehenengo sei hilabeteetan argitaratu zen 'Eguna', euskarazko lehenengo egunkaria. Bada, kolaboratzaileen artean deustuar bat zegoen. Olabeagatarra ezizenez sinatu zuen. Hemen argituko dugu nor zen.

Testua: Hektor Ortega

Gerrek zazpi zoritxar, hilketa, sufrikario eta suntsipen ekarri ohi dituzte aldean, baina baita, lantzean behin, mirariren bat edo beste. Mirari garbitzat jo dezakegu 1937ko urtebarri egunean jaio eta 139 egunez argia ikusi zuen *Eguna*, euskara hutsezko lehenengo egunkaria. Bilbon sortu zen, EAJren babesean, lau kazetarien ardurapean: Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Jose Mari Arizmendiarr

eta Alejandro Mendizabal. Baina horiek erre-dakzioa osatu bazuten ere, kolaboratzaile sare zabala ehundu zuten. Besteak beste, bertan argitaratu zuten Errose Bustintza edota Julene Azpeitia bezalako idazleek. Proiektua hauspotzen Estepan Urkiaga *Lauaxeta* ibili ei zen. Bilbo frankisten mende jausi zenean eten zen *Eguna* egunkariaren ibilbidea, duela 80 urte.

Bada, lehenengo alean bertan, laugarren orrialdean, *Gentza* (bakea) izenburupean, *Olabeagatarra* ezizenez sinatutako artikulua agertu zen. Harrez gero, kolaboratzaile hark sei bider gehiago argitaratu zuen *Eguna*-n, azkena 1937ko martxoaren 20ean. Etenaren arrazoia nahikoa garbia da: bere kroniketan aitortu zuen bezala, *Olabeagatarra* gudaria zen, Mungia batailoiko Atzuetako konpainiakoa, eta martxoaren 31tik aurrera faxistek Bizkaia bereganatzeko ofentsiba luzeari ekin zioten. Gudariak ez zuen izan ez astirik ezta modurik ere, kolaborazioak idazteko.

Berriatuan

Kronika guztietan guda kontuak ageri badi-ra ere, gehienetan beste arlo bat ere jorratu zuen. Ez zen gerra bakarra, gerra bi ziren. Bata, faxismoaren aurkakoa. Bestea, euskal gogoia (hizkuntza, ohiturak...) suspertzeko, arrotzen mendean desagertzeko arriskuan zegoen eta. Bereziki euskara eduki zuen gomutan eta ernegatuta zebilen erdarazko barbaroa eta kantuak zeuzkalako inguruan frontean.

EGUNA

Lafi - aldijetan da sendotasaldian, edonota adona

Lgo. urtia | 101'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea : Correo, 17'gn. | Bilbo'n 1937'gn. jorralle 26'gn. eguna

EUZKO GUDA-OÑETAN

TINKO, EUZKOTARRAK! IR

Paxisten gurariak ezerestu ta atzeratuteko guztiok gertu! - Durango in joaldi gogoarak. - Arerioak ez eban lortu bere guraririk, egiñalak egiñai

Zein zen guda-oina? 1936ko abenduan Mungia batailoia Lekeitio aldera eraman zuten, Ondarroa eta Berriatua aldeko frontea babes-tera. Faxistek Ondarroa bereganatu zuten eta Berriatua armada bien artean zegoen, alde batean antifaxistak, Mola jeneralaren indar-rrak bestean. *Eguna*-n plazaratu zuen azken artikuluak *Eun ta ogei egun guda-oñetan* zeu-kan izenburua, eta bertan kontatu zituen fronte hartako gorabehera batzuk. Besteak beste, Itola, Asterrika eta Anakabe aldean jardun zuten.

Lau hilabete han eman ostein, tropa berriak heldu ziren, eta Mungia batailoia erretiratu egin zuten. Frontetik bueltan zetorrela, "gomuta bat etorri yatan burura, neure gogua itun itun jesarririk. Abestika jua ta abestika etorri, baina jua gintzazan guztiak gentoza? Ez, tamalez". Eta galdutako burkideak aipatu zituen: "Itola eta Asterrika euzko odolaz gorritu da. Antxe jausi ziran Galindez, Urrutia, Atxalandabaso, Elorriaga... geu lez abestika jua ziranak".

Olabeagatarra nor zen

Ezizenez sinatuta egonik, nahiko gaitza izaten da artikulu askoren benetako egileak nortzuk ziren argitzea. Horixe gertatu zen *Olabeagatarra*-rekin. Harik eta 1990ean Eusko Jaurlaritzak *Eguna*-ko ale guztien argitalpen faksimilea plazaratu zuen arte. *Eguna*-ren gaineko ikerketa eta lekukotzak ere bildu zituen liburu hark eta bertan hipotesia planteatu zuten: *Olabeagatarra* ez ote zen izango Iñaki Olabeaga salletar anaia eta euskal idazlea (1901-1983).

Hipotesia ustela zen, baina hari esker atera zen argitara benetako egilea. Joseba Agirreazkue- naga historialariak helarazi digu edizio faksi-

Eun ta ogei egun guda-oñetan

Faxistak asaldarriok sortutako gu-
za danok ust, goban baho geyago
guten zan ta Abestika'k baina bizitza
ta eskubidiak aldatutako gudari ge-
yago biliarin aurkitu zan. Augaitik
beste Gudaloro bat gertatu zan: Mun-
gia gudalorua. Atxeta Txorj - Epi,
Sancho Elizategi ta Sabiu Atutxa dira
gudaloro onetako guda'elakak.

Gustis edetio onidu gindubezan. So-
teko ta oñetakuak ta enparauko gau-
sa bereziak. Itxubak be edzafak.

Abestika'k gudari geyago bial' bebe,
zan: Ofa of gastejida geyturik!
明新新

Gau' ixango ba'itza les gomutetan
dot ze poz ta adoretu urten gintza-
gan euzko-kuifitza aurien darugula.
Gudara giboyazan ta ezitan ituzten
ipreji itunak. Egun atan dana izan
zan aiantasuna. Alde gustijetatik abes-
ti aberkoyak entzuten ziran.

Itxas - etzeko guda ohara bialdu
gindubezan ta Lekeitio'n egin dogu
geure egon aldja. Eun ta ogei egun
Itola, Anakabe eta Asterika guda
oñetan.

Lau hilabete oñetan, era gustijetako
aldjak izan doguz. Gau izanak, ezta,
surja. Egureldi edetak be egin dau-
kuz. Batzuben berunbi'-xistuba ta
kafoyen daundotza dala-ta, geure estu
aldjak igazi bileran izan gara. Be
betan egun paketau agertzen sanian,
kontu-kontari ta abestika egoten gin-
tuzan euzketat' artian dagokion anal-
tasunaz.

Geure guda-oñetako txabolak itze-
gingo labe!
Lekeitio'n, bertan, be, egin doguz
geure atsedan alditubak. Itxas-etzeko
uri polit' oñetan adizkide on-ona'k eta
bagikuak egin doguz. Itola aintuko
dogu Lekeitio'lik eruan gebazan oroi-
pen gomutagariak.
明新新

Lau hilabete igazi' dira. Geure egin-
tarjak etori gandikala esan daukute,
ta urten gintzazan lekura etori' gara.
Aiantasunaz ta abestika jua ta ala-

Aiantasuna edujan gomuta bat eto-
ri yatan burura, neure gogua itun itun
jesarririk. Abestika jua ta abestika
etof' bada jua gintzazan guztiak
gentoza? Ez tamalez. Mungia guda-
lorua'k be ba dauz beren zinopak. Le-
keitio'ko guda oñetan batzuk geratu
dira. Itola eta Asterika euzko-odolaz
gorritu da. Antxe jausi ziran Galindez,
Urrutia, Atxalandabaso, Elorriaga...
geuk lez abestika jua ziranak.
明新新

Ekatitezan aintu Mungia gudalorua'k
be zinopak dauzka, ta Jaungoikua'ri
Begoña'ko Miren Neakutza bitartez
ekare'ak emoten dautaguzanlan oea-
suntzu etoragaralako, ekaitezan aintu
Galindez Urrutia, Atxalandabaso eta
Elorriaga gogukin, irabazi dabon be-
tikio atsedena izan dardjentzat.
OLABEAGATARRA.
(Atxeta guda'elakua.)

Mussolini'
eritafei at
xas'en iza
yago. - Ita
Inglatera'k

mileko arduradunek jaso zuten oharra. Bertan *Olabeagatarra* bera zela azaldu zuen: "*Olabeagatarra*-ren benetako izena edo jaubea Jose Andres Idigoras da, ni neroni". Sinatu, Joseba Ander Idigoras sinatu zuen. Eta ezize- naren nondik norakoa ere argitu zuen: "Neure izenordearen jatorria argi ta berezko da. Begi- ra: Olabeaga Bilbo'ko auzoan jαιο ta gaztaro guztian bertan bizi nintzan. Orregaitik guda- ritzan, guda-oñetatik (bake-aldietan) *Eguna*-ri bialdu neutsozan idazlanetan *Olabeagatarra* izenordea erabili neban".

Gutuna 1990eko irailaren 17an datatu zuen eta bere helbidea ere jarri zuen: Deustuko Blas de Otero kalean bizi zen.



Kalderepeho

euskal kultur gunea

www.kalderepeho.com

txakur kalea, 1. 48005
 bilbo • euskal herria
 tfnoa: 94 416 40 99



EUROPAN ERREPRESIOA

“EGON BADAGO” ETA “OSO PROFESIONALA”

Atxilotuak 48 ordura aske utzi izan dituzte herrialde aberatsenetako gobernuetako ordezkarien goi-bileren jira-biran istiluak izan direnean. Aurtengo uztailean Hanburgon (Alemanian) G20ren bilkuran ez zen horrela gertatu. Elorrietako David Rincon lagunekin afaltzen ari zela atxilotu zuen Alemaniako Poliziak. Bi hilabete eta erdi eman ditu preso.

Testua
Lur Mallea
Argazkia
PREST!

Bizpaihuru egun kartzelan emango zituela pentsatuz “umoretsu” eman zituen lehen egunak preso David Rinconek Hanburgon. Hamar egunera, epailearen aurrera eraman zutenean jaso zuen “lehenengo egurra”. Espetxeko egonaldia luzatuko zela jakinarazi ziotenean. Alemaniatic alde egiteko arriskua zegoela ebatzi zuen epaileak, “epaiketara ez nintzela agertuko pentsatzen zuelako”. Behera egin zuen Daviden umoreak. Bigarren ‘egurra’, “potoloa” abuztuaren amaieran jaso zuen Poliziak Hanburgon uztailaren 5etik 8ra atxilotuetako 200 bat lagunetik auziaren zain zeuden 40tik lehena auziperatzearekin bat. Bi urte eta zazpi hilabeteko zigorra ezarri zioten holandar gazte bati. “Turkoberua” izan da. Hanburgon ezaguna den epaile “ultraeskuindar batek” epaitu zuen, Alemaniako komunikabide guztien aurrean. Handik gutxira esan zioten Davidi irailaren 25ean epaituko zutela. Bere burua prestatzeari ekin zion orduan. “Okerrenerako” prestatu zen, bi urtetik gorako zigorra jasotzeko. Horrela, “zeozer hobe baldin badator ondo hartuko duzu”, dio.

Alemaniako justiziak urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion Davidi. Hiru urteko baldintzapeko askatasunagatik ordezkagarria. Fiskaltzak bere aurka eskatu zuen 3.000 euroko isuna ez zuen aintzat hartu epaileak, “ez zegoelako inolako kalte materialik ez fisikorik ordaintzeko”. Pozik har-

tu zuen epaia berotan. Patxada gehiagorekin bere abokatuarekin hitz egitean jakin zuen Alemanian hiru urteko baldintzapeko askatasuna berorleei ezartzen dietela. “Banku asko lapurtu eta gero harrapatu duten lapurrarekin” alderatu dute. Zigor aurrekaririk ezean, zergatik ezarri diote Davidi berorleei ezartzen dieten baldintzapeko askatasuna? “Ez gaituztelako Alemanian nahi manifestazioetan eta ekintza politikoetan parte hartzen hiru urtetan gutxienez”, dio argiro.

Bi hilabete eta erdi eman ditu preso guztira. Kartzelan egotea, are gehiago bakarrik egotea, “kaka zaharra” da. David, baina, Europa osoko gazteekin egon da. Oso pertsona desberdinak euren artean. Anarkistak, hippyak, komunistak... ezagutu ditu. Zentzu horretan, “oso esperientzia polita” izan da. Une txarretatik ere gauza onak ateratzea badagoelako. Eta berak lagunak egin ditu.

Abuztuaren amaieratik, guztira, 31 auzi izan dira Hanburgon. Atzeritarrei lehenetasuna eman diete, kartzelan zain izan ditzutelako. Behin-behinean preso. Urriaren 25ean epaitu dute, esaterako, Daviden lagun Alessandro. “Berak badaki aske geratuko dela. Niri bezala autoritatearen aurkako eraso saiakera leporatzen diote. Saiakera gradua genuen denok aske utzi gaituzte. Kontuak kontu, ia bost hilabete

emango ditu kartzelan, astebetean auzi azkar baten bidez bideratu beharrean”.

Auzi guztien artean bada Davidi arreta deitu dionik ere. Kaleko istiluetan manifestarien aurka gehiegizko indarkeria erabiltzeagatik polizia batzuk euren lankideak salatu baitituzte. “Polizia batzuk zigortuak izan dira. Euskal Herrian hori pentsaezina da”, Daviden hitzetan.

Errefuxiatu politikoak ere ezagutu ditu Hanburgon, presondegian. Legez kanpoko pasaportearekin Poliziak atxilotutako siriarrak eta somaliarrak bat. Errefuxiatuekin Alemaniako Gobernuak duen jarrerarekin harritu da, are gehiago bere mugetan hartzekoa zen errefuxiatu kopurua betetzera iritsi ez denean.

Irailaren 26an, etxera bueltatzean, plaza bete jende aurkitu zuen bere zain Davidek. “Flipatuta” geratu zen. Preso egon den bitartean jasotako gutunak –“10 bat egunean”–, auzoan “egindako lana”, antolatutako mobilizazioak, bere askapena exijitzen zuten ikurren zabalpena Aste Nagusian... Sentitu duen elkartasuna “izugarria” izan da. “Hemen zoritxarrez, oso ohituta gaude horrelako egoerara”, dioenez, “ezer gutxi egiteagatik zigor handiak jasotzera. Eta ondo dakigu zein garrantzitsua den elkartasuna”.

“Bitxia” bada ere, elkartasun guzti hori bere aurka erabiltzen saiatu dira. Poliziak Fiskaltzaren esku utzi baitzuen bere askatasuna exijitzeko Deustualdean eta Bilbon burututako mobilizazioetako irudiekin osatutako txostena. Poliziak txosten horretan Daviden profil politikoak ez ezik psikologikoa ere prestatuta zuen. “Alemanian gizartearen babesa baduzu militante politikoak zara eta, horregatik, pertsona arriskutsua. Hortaz, zure kaltetan da. Leporatzen dizutena militantzia politikoagatik egin duzula ebazten dutelako”. Zorionez, epaileak abokatu eta fiskalari azaldutakoaren arabera, bere lana ez zen Daviden ideologia epaitzea, getratutako ekintzak epaitzea baizik.



Gobernu aberatsenen hurrengo goi bileran ez du hutsik egingo Davidek, Alemanian egiten ez den bitartean. Kapitalismoaren eta globalizazioaren aurkako eragileen aurka Alemaniako Poliziaren eta justiziaren errepresioak etorkizuneko mobilizazioak baretuko dituen ustea du. “Hurrengo goi-bileran ikusiko dugu”, dio. Atxilotetek, espetxealdiek eta zigorrek “beldurra” zabalitzen baitute jendartean. Eta Hanburgon “ezin hobeto” erakutsi dute European errepresioa “egon badagoela”, eta “zein profesionalak diren. Eredugarria izan da dena”. Schengen Espazioaren itxiera eta Alemaniak egin nahi duen ezker muturreko pertsonen fitxero poliziala ere erreprezio horren barruan kokatzen ditu Davidek.

Harridura sortu zuen joan den uztailean G20ak Hanburgo hautatzea mundu mailako gobernu nagusien bilkurarako. Gizarte eragileen indarra handia den hiria. Oposizio handiarekin topo egingo zutela aurreikustea begi-bistakoa zen. Eta horrela izan zen. Europa mailako herri mugimendua bertan elkartu zen protesta egitera. Sistema kapitalistaren aurkariak, globalizazioaren aurkakoak, ekologistak, feministak... Orain, ondorioak ikusita, “getratua bilatzen ari zirela” pentsatzen du Davidek. Gobernuen asmoa indar erakustaldia egitea zela, euren aurkako protesta eta mobilizazioen atzean dauden guztiei mezu zuzena bidaltzeko.

b

berbetan

XABIER MADARIAGArenkin

kazetaria eta aurkezlea

“Elkarrizketetan emozioak



Testua: Nerea Olaziregi
Argazkiak: Iñigo Azkona



askatzen ditut”



Deustun bizi da Xabier Madariaga kazetaria bere senarra eta bi seme-alabekin. Asteartero ‘Ur Handitan’ saioa aurkezteko erakusten duen hurbiltasun eta apaltasun berarekin erantzun ditugure galderak Botikazar parkean.

Korrespontsal lanetan ibili zara urtetan, Euskadi Irratian plaza lortu duzu eta telebistan ikusten zaitugu astero. Arlo profesionallean ase zaude?

Bai, oso gustura nago. Irratian plaza izateak egonkortasuna ematen dit, horregatik borrokatu nuen hainbeste oposizioa gainditu arte. Plaza finko bat izateak nolabaiteko lotura sortzen du, eta beldur apur bat ematen zidan hasieran, baina aldatu nahi izanez gero aukerak badaude.

Bateragarriak dira irratia, telebista eta zure bizitza pertsonala?

Bai, iaz *Ur Handitan* saioa aurkeztea proposatu zidatenean aitatasun bajaran nengoen. Orain murrizketa eskatu dut irratian, telebistan lan egin ahal izateko, eta biekin lanaldi osoa egiten dut. Bietan nabil gustura. Irratian inoiz irudien falta sumatzen dut, baina bestalde soilik hitzekin sortu dezakezuna oso potentea izan daiteke.

Santutxukoa zara eta Deustun bizi zara duela urte bete. Zerk ekarri zintuen hona?

Kasualitatea izan zen. Senarra eta biok pisu bila genbiltzan Amezola inguruan, eta

“Soilik hitzekin sortu dezakezuna oso potentea izan daiteke”

▷ ▷ SAKONEAN

“Kamerarekin bakarrik nagoenean gustura sentitzen naiz”

Lotsatia zarela entzun dugu.

Bai, hala da, ezezagunekin kostatzen zait elkarriketa bat hastea, eta galderak egiteko joera dut. Jendeak onartzen du, kazetaria naizelako.

Zer sentitzen da Deustuko markesina bateko iragarki batean zure burua ikustean?

EITBko kanpaina bat da, bai. Ez nekien ezer, eta lagun batek bidali zidan argazkia whatsapp bidez. Espero dut markesina horretan autobusik hartu behar ez izatea.

Bateragarriak dira lotsa eta kamera baten aurrean jartzea?

Bai, kamerarekin bakarrik nagoenean gustura sentitzen naiz, intimitate hori atsegin dut, baina kalean grabatzen ari garenean eta jendea inguruan dabilenean ez naiz hain eroso sentitzen, eta nabaritzen dela uste dut.

azkenean hemen gure beharrak betetzen zituen etxea aurkitu genuen. Oso pozik gaude, jendearekin, giroarekin, salto baten jartzen gara Bilbo erdian, eta itzelezko parkea dugu umeekin egoteko.

Jerusalem, Madril eta Parisen bizi izan zara, eta hainbat gatazka gertutik bizi izan dituzu. Faltan duzu korrespontsal garaia?

Atzerria faltan dut. Bertako berriak entzuten ditudanean, hara itzultzeko gogoa pizten zait. Oso polita izan da, baina 12 urte korrespontsal lanetan ibili ondoren, konfort egoera batean murgildu nintzen, eta erronka berriak behar nituen. Zerbait menderatzeak mugatzen zaitu. Gauza berriak egiteak asko erakartzen nau. *Ur handitan* saioa zentzu horretan, erronka bat izan da.

Ur Handitan arrakasta handia izaten ari da. Pozik zaude emaitzarekin?

Mezu hori heltzen zaigu, bai. Jendeak gustura ikusten du saioa. Aurrekoan, adibidez, Bingen Zupiria Kultura sailburuarekin topo egin nuen EITBko pasabideetan, eta asko gustatzen zitzaiola esan zidan, eta poztekoa da. Audientziak ere garrantzia du, batezbestekotik gorago gaude eta hori pozgarria da. Audientzia ez doa beti produktuaren kalitatearekin, baina garrantzitsua da.

Jakin daiteke zein den sekretua?

Oso barnetik kontatutako istorioak dira. Lantaldearen eta protagonista denaren inplikazioa oso handia da, ez dira edozelako elkarrizketak, eta ikusleak hori estimatzen duela uste dut.

Zu ere biluztu izan zara inoiz?

Ez ditut mugak jartzen elkarrizketak egiterako orduan. Ez naiz ni bakarrik, ekipo osoa inplikatzeko da, eta enpatia handia sortzen da elkarrizketatu eta taldearen artean. Behin baino gehiagotan ikusi dut kamera negar batean nik galderak egiten nituen bitartean. Beraien azalean jartzen saiatzen naiz, eta emozioak askatzen ditut.

Hunkituta ikusi zintugun haurdunaldi subrogatu bidez ama izandako neska bat elkarrizketatu zenuenean.

Barru-barrutik ukitu ninduen gaiak. Bera bizitzen ari zena nire senarra eta biok pa-satu genuen hilabete batzuk lehenago.

Googlen zure izena sartzean hainbat berri ateratzen dira esperientzia horren inguruan. Beharra sentitu duzu horri buruz hitz egiteko?

Bai, gai hori eta familia anitzen kontuari ikusgarritasuna eman behar zaiola uste dut. Haurdunaldi subrogatuaren inguruko elkarrizketa bat egin nahi izan zidaten ETBn, baina ezetz esan nuen, ez nuen erabili nahi nik lan egiten dudan medio publikoa nire bizitza pertsonalarekin lotu-tako zerbait azaltzeko. *Deia* egunkarirako egin nuenean gizarte atalean berri txiki bat izango zela uste nuen, eta azalean agertu ginen. Sorpresa bat izan zen, baina ez gi-nen damutu.

Pertsona publikoa izateak ikusgarritasunari laguntzen dio?

Bai, ez naiz inor baino gehiago, baina akti-bismo apur bat egiteko beharra sentitzen dut. Sarritan unibertsitateetatik deitzen didate hitzaldiak emateko, eta aurrekoan naturaltasunez atera zitzaidan senarrari buruz zerbait aipatzea. Gustatu zitzaidan, bateren bat harrituko zen oraindik ere, baina uste dut naturaltasunez hitz egiteak normaltasunerako bide horretan lagun-tzen duela.

Telebistan zure burua ikusten duzunean, zer sentitzen duzu?

Eroso egoten naiz, gustura, askotan sor-presak hartzen ditut. Gehienetan toki itxietan egiten ditugu elkarrizketak, egoera nolabait kontrolpean izaten dugu, baina aurrekoan adibidez Katalunian grabatzen egon ginenean kalera atera ginen jendea-rekin hitz egitera. Esperientzia gustatu zi-tzaidan eta ondo ikusi nuen nire burua.

Aske sentitzen zara lan egiten duzunean?

Orokorrean bai. Behin Palestinan, 22 urte nituela, nire adineko gazteak ulertzeko beharra sentitu nuen. Guk etorkizun la-boralaz kezkatzen ginen bitartean beraiek beraien buruaz beste noiz egingo zuten erabakitzen ari ziren, ahalik eta judutar gehien hiltzeko. Horren inguruko errepor-tajea egin nuen eta emititu genuen egu-nean editoreak deitu zidan, Euskal Herrian horrelakorik ezin genuela emititu esateko.


Badago zure lanbidetik gustuko ez duzun zerbait?

Teletipoak hartu eta fusilatu behar izatea, adibidez. Oso aspergarria da. Iturriekin zuzenean lan egitea gustatzen zait, baina askotan ez dago astirik. Lanbide honetan dena atzorako izan behar du, eta horrek sarritan mugatzen gaitu.

Etorkizunerako erronkarik?

Ur Handitan-en egiten dudan lana ahalik eta ondoen egitea. Ez dut nire lana menpe-ratzen oraindik, eta erronka handia da ni-retzat. Motelegia naiz batzuetan, erantzun batzuen aurrean azkarrago erreakzionatu beharko nukeela uste dut. Erreflexuak be-har dira horretarako.

“Ez naiz inor baino gehiago, baina aktibismo apur bat egiteko beharra sentitzen dut”



A6 BILBOBUSA

2018an bidaiaren prezio igoko dute

Angel Prietok Bihotzararen elkartearen izenean parte hartu zuen joan den iraileko Osoko Udalbatzan. Bi eskari luzatu zituen mozioa aurkeztu zien talde politikoei. Batetik, A6 Bilbobusaren bidaiaren prezioa 0,35 eurotik prezio estandarrera ez igotzea, Arangoitin “benetako garraibide alternatiboa izan arte”, eta, bestetik, “auzoan alternatiba mekanikoa izateko azterketa bat egitea”. Udal gobernua osatzen duten EAJ eta PSEko zinegotziek mozioa baztertu eta euren botoekin zuzenketa propio bat onartu zuten. Alfonso Gilen esanetan “linbo juridiko egoeran zegoen autobus lantzadera linea bezala egonkortu da”, eta 2018an izango duen prezioa igoerak, estandararekin berdintzeak, “oso pertsona gutxiri eragingo dio”. Arangoitin beste igogailu bat ezartzeko aukera aintzat hartzen du udal gobernuaren zuzenketa.



Martxan daude berbalagun taldeak

Ikasturte berriarekin batera, martxan da berriro Bilboko eta Deustualdeko Berbalagun programa. Euskal Herri osoan ezaguna den euskaraz mintzapraktika egiteko fenomeno honek indarra hartu du gure hirian ere. Iaz 58 talde eta 378 berbalagun izan ziren Bilbon, horietako sei Deustualdean. Aurten, datu horiek guztiak gainditzeko asmoa daukate dinamizatzaileek. Horretarako, “euskaraz gozatzeko gonbitea” egin dute #Praktikatu eta Bizi! lemapean. Bospasei laguneko taldeak izan ohi dira, eta horiek osatzeko kontuan hartzen dira parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak. Berbalagunak biltzeko tokiak antzatzak dira. Bildu ahal dira kafetegian, tabernan edota pasean ibiltzeko... parte-hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz, beti lagun giroan. Izena ematea doan da, eta Berbaizu euskara elkartearen bulegoan egin daiteke.



ELKARTASUNA

Deustura

Azaroaren 11n, Kalera Kalera dinamikaren baitan, Elkartasun Eguna antolatuta dute. “Juankar Iglesias eta Jon Mirena San Pedro preso deustuarrek Deustura ekarriko ditugu”, azaldu dute antolatzaileek. Elkartasun Egunaren helburua kaleak “aldarritz betetzea” da: “Presoen afera mahaigaineratzea eta etsiko ez dugun deiadarra zabaltzea, denak etxean izan arte”. 13:00etan herri mosaikoa osatzeko hitzordua jarri dute La Zonan. Bertan izango dira Deustuko trikitilari eta panderojoleak ere. 15:00etan herri bazkaria izango da (langileek 15€, langabetuek eta ikasleek 10€, umeei 5€) Herriko tabernan eta ostean, 17:00etan, bingo musikatua eta argazki sorpesak, 19:00etan Elektrotxaranga eta 21:00etik aurrera DJ Pintxe Pendeja.




Tripontzia zozketarako boletoak salgai Deustualdean

Gure Esku Dagok eta Kontseiluak elkarlanean Tripontzia Urteberriko Saria jarri dute martxan. “Lurraldetasuna eta euskal komunitatea bere osotasunean aintzat hartzen duen formatu honetako lehen zozketa”. Zerbaki eta serie irabazleak 60.000 euro jasoko ditu eta zerbaki bereko gainontzeko zazpi serieek, bakoitzak, 6.000 euro. Arduradunek nabarmendu dute gainerako sari potoloen aldean, irabazteko aukerak handiagoak direla, baina, bereziki,

indarra eman nahi diotela bertakoa izateari, “gurea, euskal herritarren zozketa izateari”. Deustualdeko hainbat denda, taberna eta elkartetan salgai daude dagoeneko boletoak. Tripontzia Urteberriko Saritik jasotako dirua Gure Esku Dago eta Kontseilua erakundeak finantzatzeko erabiliko da, “erabakitzeo eskubidearen aldeko ekimenak eta Euskal Herrian euskararen normalizazioa bideratu eta bizkortzeko egitasmoak laguntzeko”.





Urtea: 1962

Txema Luzuriaga

Kanalaren irekierarako urte batzuren faltan

Deustuko Kanaleko obraren itxura duzu hau, irekierarako urte batzuk falta zirela. Etorkizuneko bi dikeak atzeman daitezke argazkian, eta itsasadarretik hasitako lanak, Kanalaren gainerako zatiarekin lotura egiteko. Ezkerrean Zorrotzaurreko industria ageri da eta eskuinean San Inazioko etxe

blokeak eta Errekaurti baserria. Urte batzuk beranduago Errekaurtiren lursailean paratu zuten Intxixu ikastola. Maite Elizarralde Arteagak eta Bego Irustak utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
 BETI ZIZEKAN SUA
 argi bat izeki zen zeruan
 su horidun sugarra ostopo
 Itzalsuen atzean
 Ramon & Kaja 26
 DEUSTU

ATXURI
TABERNA

Luzarra 1
 Deustu

946 75 40 17

Nailan
 Parquetak - Barnizak

Morgan kalea z/g
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
 nailanparquet@euskalnet.net

Optica
Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
 SAN INAZIO 94 475 11 24

www.bilbohiria.com

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia

berriak * musika
 elkarrizketak

BREST

kafetegia

Blas de Otero, 5
 Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak

Plaza Celestino M^o del Arenal, 12
 48015 Deustu-Bilbao
 Tel.: 94 600 14 24
 alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
 Deustuko Liburudenda
 San Pedro Plaza 4

KABIA
 GASTRONOMIA • TABERNA • KULTURA

ORIXE KALEA 48
 SANI

1924tik Deustun

Tintorería
La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
 jantziak...garbitzen ditugu

artez
 euskara zerbitzua

Probatu herrizki.eus

ANDROID APP Google play App Store

ERRODOKO BARRAZTEA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
 48014 Deustu
 tel. 94 475 22 33
 matxintxu@aeknet.net

Matxintxu
 aek ■ euskaltegia

Matrikula zaitzez! **aek**

Iragar zaitetz

Prest!^{-en}

tel. 94 447 10 42
 bilbokoaldizkariak@gmail.com

RONDOKO
 HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Bitxidenda

Sabin
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
 Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
 CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
 TEL. 94.447.70.32
 E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
 www.persianaskm.com

Oktoberfest

Etxeko berezitasunak:
 txerri-ukondoa eta saltxitxak

Urtebetetze askariak
 ematen ditugu

Santxo Azepeitia, 3 - 94 447 22 83

Odontologia orokorra eta prebentiboa
 Ume eta helduak
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa
 Peridontzia eta protesi kengarriak
 Ortodontzia

PADI
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
 E.P.S. 425/97

Arangoitiko auzotarrak
A6 Bilbobusaren tarifa
igoeraren aurka agertu dira.
Zer deritzozu?

Inkesta: Laura Freijo



**Ariane
Arangoiti**

Ez nago batere ados prezio igoerarekin; alde batetik garraibide gehiago behar ditugulako eta bestetik Arangoitiko igogailua ez delako auzoaren goiko aldera heltzen.



**Joseba
Arangoiti**

Badirudi, betiko arazoak betirako izatea nahi dutela betikoek... Borrokan jarraitzea, ez dugu besterik!



**Urtzi
Arangoiti**

Igogailu berria auzoaren zati batera baino ez da heltzen eta zaharra (aspaldi konpondu zutena) itxita dago. Udal gobernutik ez dago borondaterik arazoak konpontzeko, prezioaren igoera lotsagabekeri bat da.



**Maialen
Deustu**

Ez da bidezkoa tarifaren igoera, Arangoitiko auzokide gehienentzat autobus hori hartzea ia beharrezkoa baita. Hile bukaeran prezioaren igoera igartzen da.



**Bego
Deustu**

Herritarren poltsikoak kaltetu eta gutxi batzuen interesak saritzen direla besterik ez dut ikusten. Zer eskatzen du herriak?



**Jon
Erribera**

Ez dut uste bertara heltzeko arazoak dituen auzo batek autobusa ordaindu behar duenik. Doako zerbitzua izan beharko litzateke.



harkua bete berba



>> MUSIKA

ZAZKEL TALDEAREN BERRIENA

‘Ez Entzun’ izenarekin bigarren lana kaleratu du Banden Lehia txapelketa irabazi zuen Zazkel taldeak. Kantarrietako bat da Irati Arregi Pikabea, San Inazio BHIko irakaslea.

Testua: PREST! Argazkia: Zazkel

Erditu berri daude Zazkeleko taldeakideak. ‘Ez Entzun’ izeneko bigarren diskoa Interneten entzungai dago joan den irailetik. Diskoaren kaleratzea, formatu fisikoan, berriz, nahi baino gehiago atzeratu da, “arazo tekniko batzuk” direla eta. Baina, azkenik, heldu da dendetara.

Irati Arregi kantaria pozik dago lanak orain arte izan duen harrerarekin. Publikoak “ondo” hartu ditu Zazkelen abesti berriak. “Ilunagoak” direnak, musika ingelesaren kutsuagatik. Etxahun Arregi (gitarra eta ahotsa) da kantuen konposatzailea, eta bere arreba Iratik barre artean dioenez, “musika ingelesa entzun du neguan zehar”. Horregatik ikutu ilunak.

Baina Zazkelek ez ditu guztiz baztertu bere doinu erritmiko eta dantzagarriak. *Afera ustelak* kantuak,

adibidez, “Jackson Five gogoraraziko dio norbaiti. Michael Jackson eta anaien bizitasunarekin salatzen ditu Zazkelek musikaren industriaren arrakasta nork izango duen baldintzatzen duten boteredunak. Iratiren esanetan, “musikariak arrakasta izango du edo ez, baina ez bere musikagatik, beste gauza batzuk agintzen dutelako baizik. Eta guk jendea animatu nahi dugu beste musika bat entzuteran”.

Bazka ederra abestia ere “erritmoduna” da. Izatez, hitzetan ogitarteko bat prestatzeko errezeta aipatzen dute. “Oso umoretik egindako” kantua da, gaiaren aldetik “berezia”, “jateari buruzkoa delako”.

Zazkeleko zazpi kideek 2017a konposatzen eta grabatzen eman dute batik bat. Banden Lehia txapelketaren 8. edizioa irabazteak

disco berria argitaratzeko epe jakin batzuk betetzera behartu baitu taldea. Hori dela eta, ikasturtea “nahiko gogorra izan da” lehiaketa irabazi ostean “oso justu” ibili direlako: “Jo eta ke laanean ibili gara. Inspirazioak harrapatu gaitu lan eta lan. Presiopean egindako lana da hau, baina gustura gaudete emaitzarekin”.

Grabaketan Kaki Arkarazo izan du Zazkelek “laguntzaile eta gidari”. Garate estudioan gustura aritu dira Kakirekin grabatzen, “erretiro musikalean” baleude bezala.

Zuzenekoak, gutxi batzuk, baina eskaini dituzte. Bartzelonan EH Sona eta Bilbao BKB Live jaialdietan –Banden Lehiari esker–, Guggenheim parean –prekariateterik gabeko museoa aldarrikatzeko–, Aste Nagusian Abanteren txosnan... Horrelako hitzorduetan

jendea hurbiltzen zaie egiten duten musika gustuko duela esanez, “baina hortik zure taldea programatzera, auskalo”, dio Iratik: “Ea ateratzen zaizkigun kontzertuak”. Aurrera begira, bat behintzat atera zaie. Ilusioa piztu diena. Azaroaren 18an Donibane Garazin emango duten zuzenekoak. Jotzeko “gogotsu” daude, eta horretarako “asko entseatu” behar dute.

Zazkelen zaleen artean badira Iratik irakasle den San Inazio BHI ikastetxeko ikasleren bat edo beste. Baina, oro har, musikari baino “irakasle bezala” ikusten dute, “oraindik talde famatu ez garelako izango da”. Musikariei “duintasunez” ordaintzearekin konformatzen da Irati. “Iturginari beste musikariei ordaintzea” da bere ilusioa, bere “ametsa”.

zazkel.bandcamp.com



Txartel bakarraren aldeko manifestua

Bizkaiko Garraio-sistema Publiko Bateratuaren eta Txartel Bakarraren aldeko Foroak sei puntutako proposamena luzatu du manifestu batean Bizkaiko garraio publikoaren etorkizun hurbila markatuko duten politika eta jardueren oinarri modura. "Mugikortasuna hobetuko bada, garraio publikoa hobetu, sustatu eta erabiltzea saritu behar da, bestela jai dugu", adierazi dute foroko kideek.

topagunea.eus/udagoieneko-ostera-2017



Udagoieneko Ostera 2017

Hemezortzi urte bete berritan, badator, ostera, euskarazko kultur zirkuituaren edizio berri bat. Euskaltzaleen Topaguneak sei zuzeneko emanaldi antolatatu ditu, urriaren 21etik abenduaren 2ra bitarte, Bizkaiko antzoki banatan gozatzeko. Horietatik bi Bilbon izango dira. Azaroaren 19an, Kepa Junkera eta Sorginak *Maletak* ikuskizuna eskainiko dute BBK aretoan eta azaroaren 23an Su Ta Gar taldeak zuzeneko Kafe Antzokian.

NEUMÁTICOS MITXEL



Deskontu handiak!!!

Mekanika azkarra: gurpilak, filtroak, olio aldaketak, bateriak, frenoak, etabar...

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]



Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com





>> DEUSTUKO GAZTE LOKALA

UDALAK EZ DU IRAILEAN GAZTE LOKALA UTZARAZI

Negoziaketa guztiz irekia dago momentu honetan. Bi bilera izan dituzte gazteek Udaleko ordezkari Asier Abaunza eta Marta Ajuriarekin.

Testua: Ane Rotaetxe / Argazkiak: Garazi Calvo

Elkarlanari eta proiektuaren defentsari ekin diote Deustuko Gazte Asanbladako kideek irailaren hasieran utzarazteko agindua gutun bitartez helarazi zitzaizenetik. Espazio autogestionatuen garrantzia eta ikusgaitasuna izan da beraien erronka ekimenez betetako bi hilabete hauetan. Sentitu duten babesa handia izan dela azpimarratu dute, eta oso eskertuak daude zentzu horretan jasotako elkartzan keinu eta mezuekin.

Mugimendu handiko asteak izan dira azken hauek Deustuko Gazte Asanbladako kideentzat. Udalaren agindua jaso zutenean premiazko asanblada deitu zuten, eta batzarrera bertaratu zirenek zera erabaki zuten: utzarazteko mehatxuaren aurrean ez zirela geldirik egongo eta, beraien leloak dioen bezala, Gazte Lokalaren defentsan irmo arituko zirela. Helburu horrekin, eta iraila osoan eta urrian zehar, egitarau potoloa

antolatu dute ahalik eta txoko gehienetara beraien mezua zabalteko asmotan. Serigrafia tailerra, bizikleta martxa, belaunaldi ezberdinetako gazte asanbladako kideen arteko solasaldia, ortuko produktu ekologikoen eta bigarren eskuko arropen merkatua eta buzoneoak egin dituzte, besteak beste.

Gazte Asanbladako kide Guruzneren ahotan "parte-hartze oso handia izan da antolatu ditugun ekimen guztietan. Serigrafia tailerrean, adibidez, 30 pertsonak hartu zuten parte, eta manifestazioa Deustun azken urtetan egin den jendetsuenetarikoa izan da. Ehunka pertsona hurbildu ziren San Pedro plazara Gazte Lokalari babesa emateko asmotan, gazteak batzuk, eta ez hain gazteak, beste batzuk.

Irailako azken astea hasi berri zenean, desalojo data baino egun batzuk lehentxeago, Asier Abaunzak EAJko udal gobernua- ren asmoa aditzera eman zuen udaletxeko agerraldi batean, eta handik pare bat egunetara Juan





barkua bete herba



tu zeintzuk konpromiso hartuko dituen alde batek eta bestea. “Insonorizazioa gure gain hartzen baldin badugu sinatzen dugun hitzarmen berri horretan Udalak kontzertuak egiteko baimena eman beharko liguke, ordutegiak finkatuz noski”.

26 urte luze hauetan hainbat belaunaldi ezberdinetako deustuarren kabia izan da Luzarra kaleko merkatu zaharra, eta asko dira modu batera edo bestera lokal honetan bizitako pasarteak. Hitzaldiak, kontzertuak, asanbladak, antzerki emanaldiak, tailerrak, pelikula proiektzioak, Jai Batzordearen bilerak, umeen urtebetetze ospakizunak, ingelezko klaseak, bazkariak eta bazkalosteak, eztabaida luzeak, garbiketa orokorrak, Gabon Zaharrak, topaketa feministak, futbolen txapelketak... bakoitzak bere erara bizi izan du Gazte Lokalak eskaini dion espazioa, baina ezin da ukatu milaka eta milaka gazte bildu izan direla urte guzti hauetan lau pareta horien babesean kalitatezko eta doako aisialdia eta elkarlana gozatuz. Eta guzti hori musu-truk urtetan esfortzu handiz aritu diren hainbat eta hainbat gazteren inplikazio eta lanari esker. Nork bere apurra jarriz. Ea negoziaketak emankorrek diren eta bere horretan beste horrenbeste urte irauten duen.

Mari Aburto alkateak EITBko saio batean konfirmatu zuen. Udalak bazuen plan bat, eta plana Gazte Lokala bota eta bertan lau solairutako etxebizitzak eraikitzea zen.

goela eta oraindik ere ez dagoela batere zehaztuta”.

Albiste honek ez zituen asanbladako gazteak etsitu, eta bilera bat eskatu zuten Udaleko ordezkariekin. Batzar horretara insonorizazio proiektu bat burutzeko konpromisoa eraman zuten eta bitartean kontzertuak eteteko hitza eman zuten. Udalak, bere aldetik, erakina bere horretan utziko zuela adierazi zuen eta baita ordura arteko kudeaketa errespetatzeko hitza eman ere. Guruzneren arabera, “ez genuen erraz ikusten Udalak atzera egitea etxebizitzak eraikitzeko asmo horretan, eta gerora jakin dugu plan hori ez ze-

Beste bigarren bilera bat ere izan dute urriaren 10an, non, aurretik, Gazte Asanbladako kideek insonorizazio aurrekontu batzuk baloratu dituzten. Gazte Lokala insonorizatzeak 30.000 euroko kostua izango du eta, gazteen esanetan, “gu ez gara taberna bat, non gastu hori amortizatu daitekeen. Guk eduki kulturala eta musikala eskaintzen dugu, baina beti oso ordutegi zehatz batekin, auzokideei traba handirik eragin gabe”.

Gazte Asanbladako kideen aburuz, negoziaketak ixten direnean, 2008an sinatutako azken hitzarmena berriz ere berplan-teatu beharko litzateke eta zehaz-

ANTZERKI LABORATEGIA

P6

PABELÓN Nº6

ARTE ESZENIKOAK

LABORATORIO TEATRAL

BA/D

LABORATORIO DE INVESTIGACIÓN Y EXPERIMENTACIÓN EN EL TEATRO

B U Ñ U E L

URRIAK

24

ESTREINALDIA

zuzendaria:


RAMÓN BAREA



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

BAKOI, ARRAUTZ ETA PIPER PINTXOA



Ramon y Cajal kaleko 26. zenbakian dagoen Izeki tabernara jo dugu beste behin. Egunero pintxoz beteta dagoen barraren aurrean, tabernako pintxo arrakastatsuenetakoa zelan prestatzen duten azaldu digute.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 5 minutu

Prezioa: 1,00€ edaria eskatuz gero

Berezitasuna: asetzen duen pintxo da

Kontu batzuk

Pozik daude Izeki tabernako lagunak. Bi urte bete dituzten honetan, esker ona agertu nahi diete tabernara hurbildu diren deustuarrei, Deustutik kanpo hurbildu direnei, eta barraren kanpoaldean ez ezik barruan lanean jardun dutenei. “Denok gara egindako bidearen zati”, diote. Pintxo gabe hasi zen tabernak hiru sukaldari ditu egun “pintxo sinple eta goxoak” prestatzeko. Modernoak baino “klasikoak” dira, “kalitate-prezio onekoak”. Gargaradoak (arruntak eta artisauiak), kalitatezko kafeak eta edari landuagoek osatzen dute Izekiko eskaintza.

IZEKIko Cristian, Javi, Anka eta Boti



IZEKI TABERNA

Ramon y Cajal 26, DEUSTU

Egunero zabalik

Astegunetan 9:00-00:00

Asteburutan 09:00-02:30



Zelan egin?

Olio oso berotan arrautza frijitu ostean, zartagina eta olio baliatu piper berde zatiak gorritzeko eta azkenik bakoia frijitzeko. Lehengai kalitate zenbat eta hobea izan orduan eta goxoagoa izango da pintxo.

Osagaiak prestatu eta berehala jatea komeni da pintxo, bero dagoela.

Saltsaren bat eranstea posible da (mahonesa, aliolia...), norbere gustura. On egin!

OSAGIAK

- Ogia
- Bakoia
- Arrautza
- Piper berdea
- Olio
- Gatza



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean

**DEUSTUKO BATZOKIA
1978 TIK**

C/ Hilloodoro de la Torre. 5. 48014 DEUSTO
Tf: 94 405 06 58 BIZKAIA

Restaurante
Deustoarrak



Tfnoa: 94 475 41 54
Faxa: 94 475 88 02

Madariaga etorbidea, 9
48014 Deustu

www.deustoarrak.com
deustoarrak@terra.es



el viejo roble
* CORPORAÇÃO *

Pedro Carballo Suárez

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

Ramon y Cajal 23



**Deustuko
Ramon y Cajal kalean
girorik onena!**

ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO



AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



LUKEN LAMIKIZ IBARRA

irakaslea

HAMAIKA BAIETZ!

Berbaizu elkarteak, Deustualdeko elkarte, talde eta erakundeekin elkarlanean, erronka interesgarri eta aktiboa proposatu du datorren hilabeterako: Deustualdean, hamaika egunez, noiznahi, nonahi eta edonorekin euskaraz bizitzeko saiakera egitea, horretarako, euskaraz dakitenak eta ulertzen dutenak aktibatuz.

Hala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra doazen egunetan, bi era egongo dira aktibazio-lanetan aritzeko. Alde batetik, Ahobiziak: elkarrizketak beti euskaraz gidatuko dituztenak. Bestetik, Belarriprestak: hitzartzeak euskaraz izatea erraztuko dutenak, nahiz eta batzuetan gaztelaniaz aritu. Erronkan parte hartzeko, hortaz, elkarteak errazten duen esku-orria bete daiteke edota orrialde honetan izena eman: 11eguneuskaraz.blogariak.net

Horrez gain, erronkarekin lotuta, euskaraz bizitzeko baliabideak gutxi ezagutzen direnez, hemen zenbait interesgarri: Badok musika ataria, euskal musikaren Spotify-a; euskaraz dakiten komertzioen Baduzu aplikazioa; euskara hutsean argitaratutako *Harmaila* kirol-aldizkaria; komiki formatuko *H28* hilabetekari satirikoa... Ezagutu, erabili eta zabaldu!

Baietz erronka lortu! Hamaika baietz!



ENARE MUNIATEGI

Elorri bertso-eskolako kidea

IRAKASLE LANETAN

Doinua: *Bizkaiko aberatsak*

Ni ikasle izan naiz
gainera luzaro
orain beste aldean
askotan arraro
nahiz sarritan bihurtu
behar naizen mago
asko irakasten diet
hori argi dago
haiek niri osteratzen
askoz be gehiago

Ikaste-prozesuan
denok tipi-tapa
nahiz ta sarri gogorra
eiten dan aldapa
kantura irten daitezen
beti nau tiraka
etxera pozik doaz
bi koplak botata
ni ere zoriontsu
pozik joan dira ta



DARABILBO

AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOAN

ZUK
ZEUK

AUZOAN, EUSKALTEGIAN,
EDOTA LAGUNARTEAN
DARABILBOKO EKINTZAREN
BAT ANTOLATU NAHI?
DEITU ETA DIDA BATEAN
LOTUKO DUGU
663 089 095

SUKALDARITZA TAILERRAK,
IBILALDI KULTURALAK,
BIBON BIZIKLETAZ,
MUSEOAK,
BERTSO GOSARIAK,
DASTAKETAK,
EUSKAL KULTURA, FILMAK
MODA, JOSKINTZA,
ARGAZKILARITZA, KERAMIKA
TEKNOLOGIA BERRIAK,
MINTZATU APP..

B

Bilbao

WWW.DARABILBO.EUS



Z I N E

B I

**BILBO
BILBAO**

**BILBOKO DOKUMENTALEN ETA
FILM LABURREN NAZIOARTEKO
JAIALDIA / INTERNATIONAL
FESTIVAL OF DOCUMENTARY AND
SHORT FILM OF BILBAO / FESTIVAL
INTERNACIONAL DE CINE DOCUMENTAL
Y CORTOMETRAJE DE BILBAO**

**AZA 10/17
NOV 2017**

9 17



© MARINE 2017 / Foto: © David Seymour/Magnum Photos/Contrasto

ANTOLATZAILEAK ORGANIZADORES ORGANIZERS

BABESLEAK PATROCINADORES SPONSORS

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES COLABORATORS